



“Eraikuntza da Espainiako ingurumen-hondamendirik handiena”

‘Boom’ urbanistikoa gertatu zen garaian, Alemanian, Frantzia eta Erresuma Batuan adina etxe eraiki zituzten urtean Espainian bakarrik; gainazal hori neurtzen hasita, 50.000 futbol-zelairen parekoa, gutxi gorabehera. Datu adierazgarri horiek ematen ditu Jaime del Valek, Lurraldea Babesteko Hiritar Koordinadoraren bozeramaileak (estatu mailan espekulazioaren aurka sortu den lehen mugimendua da). Madrildar artista hau ildo bereko beste mugimendu batzuen buruan ere agertu da. Adibidez, Salvemos Mojácar izenekoa, zeinak lagundu egin baitu Almeriako El Algarrobico hotel ospetsua geldiarazten. Del Valek Europako Parlamentuan salatu du arazoa, eta ondorio larriak ekarriko lituzkeela ohartarazi du. Krisia gorabehera, orain arteko eredu “jasanezin” berberaren aldeko apustua egiten dela salatu du, zeina “luzera guztion artean ordaindu beharko baitugu”. Kontsumitzaileak mobilizatzea deitzen ditu.

Ze eragin izan dute eraikuntzak eta herri-lanek Espainiako ingurumenean? Espainian inoiz izan den ingurumen-hondamendirik handiena izan da, eta, segur aski, Europako handiena ere bai.

Zer datu nabarmenduko zenituzke? ‘Boom’-a gertatu zen urteetan, 50.000 futbol-zelaik hartuko luketen gainazala urbanizatu zen urtean, eta Europako gainerako herrialdeetan baino % 500 handiagoa izan zen eraikuntza-tasa. Alemanian, Frantzia eta Erresuma Batuan, hiruretan adina etxe egin zituzten.

Zein dira inguru kaltetuenak? Malaga, Valentzia, Alacant, Murtzia, Kataluniako kostaldea, Balear uharteak eta Madrigo erkidegoa dira kasurik muturrekoenak, baina lurralde guztiei eragin die.

Kostalde guztia adreiluz josia dago, eta barnealdean ere badira oso kasu ezaugarriak; Avilakoa, adibidez, non mega-urbanizazioak planifikatzen ziren, 40.000 biztanle hartzeko, edo parte tematiko erraldoiak, Monegrosko basamortuan egin nahi izan dutena bezalakoa.

Krisiaren ondoren, gutxitu egin al da ingurumen-eragina? Ez, txikizioa egin dago, eta ez du atzerakorik. Ekoizpena dibertsifikatzearen aldeko apustua egin beharrean, eredu jasanezin berberaren alde ari dira: kenkariak eskaintzen dituzte erosteagatik, BEZa beheratzen diote etxe berria erosten duenari, milaka plan urbanistiko ari dira lantzen lurralde guztian... Milioika etxe berri egiteko prestatzen ari dira, nahiz eta hiru milioi baino gehiago dauden hutsik eta nahiz eta beste milioika batzuk dauden onartuta eta egitear. Eredu suizida da, eta hainbat arazoren iturburu ere izan da: etxebizitzari lotutako arazoak, ustelkeria, krisi ekonomikoa eta langabezia.

Ezagutzen duzu ingurumen-eragin handia izan duen kasu jakinen bat? Playa Macenasen (Mojácar), adibidez, Limonium Estevei landarearen berezko espeziea deuseztatu dute ‘Macenas Med Group’ makroproiektuarekin (probintzia horretan hondamendirik handiena eragin duena izango da, segur aski): 1.400 etxebizitza, bi golf zelai eta zenbait hotel lurzoru babestuan. Ia bukatua dago, nahiz eta krisiak geldiarazi egin duen. Jarri ditugun helegiteek oraindik ez dute lortu badaezpadako galarazpenik.

Zu Europako Parlamentuan izan zinen gai hori salatzeke? Zer erantzun zizuten? Zenbait urteren buruan, Aukentxostena onartu zuten, zeinak argi eta garbi azaltzen baitu zenbaterainoko eragina izan duen urbanismo basatiak Espainian. Era horretako erakunde ba-

tek Europako herrialde bati buruz idatzi duen testurik erabatekoena da. Espainiari kohesio funtsak kendu behar litzaikeela iradokitzen du.

Balio izan al du zerbaitetarako? Ez askorik. Ez da loteslea, eta komunikabideek ez diote jaramonik egin, ustelkeriaren muina ukitzen duelako. Baina aurrekari beharrezko bat ezarri du.

Zer egin dezakete kontsumitzaileek? Bat: iruzur handi honen kontzientzia hartu, eta ohartu guztiok murgiltzen gaituela krisi ekonomikoan, sozialean, ingurumen-krisian eta krisi demokratikoan. Bi: onartu, luzera begira, guztiok ordaindu beharko dugula ingurua suntsituz aberastu nahia. Hiru: alokairu sozialaren alde egin, eta ez espekulatu.

El Algarrobico hotela eraitsiko dute azkenean? Uste dugu, Granadako Auzitegiak epai irmoa ematen duenean, ezingo dutela helegiterik jarri Auzitegi Gorenean. Baina prozesu mantsok dira, eta zenbait urte joango dira. Junta eta Carbonerasko Udala eginahalak egiten ari dira legeztatzeke, jendeari beste gauza bat sinetsarazten badiote ere.

Zer iruditzen zaizu eraikuntza iraunkorra esaten diotea? Ez dut behar bezala ezagutzen, baina eskatu nahi dut ez dezatela modu demagogikoan erabili espekulatzailak mozorrotzeko. Espainian erabateko atzerapen edo moratoria behar da eraikuntzan, eta zenbait markadatan, azken 30 urteetako demasiak desegiteko erabili behar lirateke udal-aurrekontuak.

Ingurumen Ministerioak Kosta Legea berritzeko asmoa du. Higiezin burbuila bultzaberritzeko asmoa adierazten du, eta kezkatzekoa da. Protesta indartu behar da. Iragartzen dugu mobilizazio handiak izango direla horren aurka.

Jaime del Val

Lurraldea Babesteko
Hiritar Koordinadoraren
bozeramailea

